

## KARATULA

# **DONOSTIA SUSTAPENAK KUDEATUKO DUEN TALENT HOUSE II ERAIKINAREN ERAIKUNTZA LANEN JARRAIPEN PROZESURAKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUAK, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ERAENDUKO DUTEN KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARRENA**

### **1. KONTRATUAREN XEDEA**

Kontratuaren objektua da Donostia Sustapenari laguntza teknikoko zerbitzuak ematea Talent House II eraikinaren egikaritze proiektuaren, eraikuntza lanen eta abian jartzearen kontrola, gainbegiratzea eta jarraipena egiteko.

Honako hau da kontratuaren CPV Kodea: 71356200-0 (Laguntza teknikoko zerbitzuak).

### **2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA**

Donostiako Sustapena SA sozietatea (aurrerantzean, erakunde kontratatzailea) da erakunde kontratatzailea.

Erakunde kontratatzailearen Presidenteordea da Kontratazio-organoa.

### **3. ALDAERAK**

Ez da aldaerarik onartzen.

### **4. KONTRATU-AGIRIAK**

Kontratu izaera izango dute Klausula Administratibo Partikularren Pleguko 5. Klausulan adierazitako agiriek.

### **5. KONTRATUAREN IRAUPENA**

53 hilabetekoa izango da kontratuaren iraupena, kontratua formalizatzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Kontratastak kontratua eta hura eraentzen dituzten Pleguak betetzeko obligazioa izango du, kontratua edo luzapenak indarrean dauden bitartean.

### **6. ELEMENTU EKONOMIKOAK**

## 6.1. LIZITAZIOKO OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Unitate bakoitzeko lizitazio preziorik altuenak ondorengoak dira:

- 90,75 euro/ordua (BEZa barne) arkitekturaren, instalazioen, egituren eta telekomunikazioen arloetako laguntza teknikoko zerbitzuaren truke.
- 3.539,25 euro/hilabetea (BEZa barne) obren jarraipenerako laguntza teknikoko zerbitzu lehenetsiaren truke.
- 66,55 euro/unitatea (BEZa barne) arkitektura teknikoaren arloko laguntza teknikoko zerbitzuaren truke.

Aipatutako lizitazio aurrekontuaren oinarria zehazteko ondorengo gastu zuzenak, zeharkakoak eta balizkoak kontuan hartu dira:

- Gastu zuzenak
- Zeharkako gastuak
- Gastu orokorrak
- BEZ

Lizitazio oinarrizko eta gehiengo aurrekontua 215.924,50 eurokoa da (BEZ barne).

Aipatutako lizitaziorako oinarrizko aurrekontua kalkulatzeko kontuan hartu da gutxi gorabeherako aurreikuspena, orientagarria eta loteslea ez dena, kontratuak irauten duen bitartean, hau da, 53 hilabeterako:

- 1.403 ordu arkitekturaren, instalazioen, egituren eta telekomunikazioen arloetako laguntza teknikoko zerbitzuaren truke 90,75 euro/orduko (BEZa barne).
- 24 zerbitzu obren jarraipenerako laguntza teknikoko zerbitzu lehenetsiaren truke, 3.539,25 euro/hilabeteko (BEZa barne)
- 55 ordu arkitektura teknikoaren arloko laguntza teknikoko zerbitzuaren truke, 66,55 euro/unitateko (BEZa barne).

Honela izanda, lizitatuzaileek haien proposamen ekonomikoan unitateko prezioak jarriko dituzte (BEZ barne) zerbitzu bakoitzeko aipatutako lizitazio unitateko preziorik altuenetik gora ezin direnak joan.

## 6.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia 178.450,00 eurokoa (BEZ kanpo) da; balio hori kalkulatu da Sekto Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 101. artikuluan aurreikusitako moduan eta ondoretarako; lege horren bitartez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da espainiar ordenamendu juridikora.

Zehazki, kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko, kontzeptu guztiengatik ordaintzeko gehienezko balioa hartu da kontuan (BEZ kanpo), luzapenak barne, eta aurreko hamabi hilabetetan esleitutako antzeko kontratuen balio errearen arabera kalkulatu da.

## 7. PREZIOAREN ORDAINKETA

Klausula Administratibo Partikularren Pleguaren 8. Klausulan adierazten den moduan ordainduko du prezioa erakunde kontratatzaileak.

## 8. PREZIOAREN BERRIKUSPENA

Ez dagokio prezioaren berrikuspena egitea.

## 9. BEHIN BETIKO BERMEA

Ez da beharrezkoa Behin betiko Bermea eratzea.

## 10. KONTRATATZEKO GAITASUNA

### ➤ **Kaudimena:**

Lizitatzzaileek ondorengo finantza, ekonomia, teknika eta profesional kaudimena dutela frogatu behar dute:

- Ekonomia eta finantzia kaudimena. Urteko negozio kopurua kontratuari dagokion arloan, azken hiru urteetan onenarekin lotuta (zeinetan urteko kontuak onartzeko betebeharra muga eguneratua egon behar da) lizitatzzaile hasiera edo eratze dataren arabera eta eskaintzaren aurkezpenaren arabera, 60.600 euro gutxienez izan behar da.
- Teknika eta profesional kaudimena. Azken hiru urteetan zehar, Obra Zuzendaritzako eta/edo Laguntza Teknikoko 3 lan; horietako bat, gutxienez, kontratuaren objektuaren antzeko ezaugarriak zituzten obretan (egikaritze materialerako aurrekontua: 6.000.000 €; bizitoki kolektiboko eraikina edo antzekoa)

Lizitatzzaileek aurreko paragrafoan eskatutako kaudimena egiaztatu ahal izango dute, honako sailkapen hau aurkeztuta, administrazio-klausula berezien agiriko 17. klausulan ezarritako baldintzetan:

- U Taldea, 7 Azpitaldea, 1 kategoria

### ➤ **Giza bitartekariak**

Horrez gain, ondorengo gutxieneko giza baliabideak bideratu beharko dituzte lizitatuzaileek kontratua egikaritzera:

- Kontratuaren arduradun eta solaskide bat, kontratuaren inguruko gaiak jorratzeko, zerbitzu honen eskaerak izapidetzeko eta laguntza teknikoa emateko arkitektura orokorraren arloan, kontratua garatu bitartean. Pertsona honek, gutxienez ere, **goi mailako arkitektura titulua edo baliokidea** izan beharko du eta baita jarraian adierazitako gutxieneko esperientzia azken 7 urteetan zehar ere: kontratazio honen objektua diren jarduketekin lotura duten hiru obra zuzendaritza eta/edo laguntza teknikoko zerbitzuak, horietako bat, gutxienez, egikaritze materialerako aurrekontua 4.000.000 euroko bizitoki kolektiboko eraikin edo antzekoa dena.
- Gutxienez ere **goi mailako ingeniari industrial titulua edo baliokidea** duen pertsona bat, ingeniariaren arloko eta instalazioen arlo orokorreko laguntza teknikoko zerbitzuaren arduradun gisa. Pertsona honek jarraian adierazitako gutxieneko esperientzia izan beharko du ere: kontratazio honen objektua diren jarduketekin lotura duen laguntza teknikoko zerbitzu bat, bizitoki kolektiboko eraikin edo antzeko eraikinetan, azken 7 urteetan zehar.
- Gutxienez ere **goi mailako ingeniari industrial titulua edo baliokidea** duen pertsona bat, ingeniariaren arloko eta instalazioen arlo orokorreko laguntza teknikoko zerbitzuaren arduradun gisa. Pertsona honek jarraian adierazitako gutxieneko esperientzia izan beharko du ere: kontratazio honen objektua diren jarduketekin lotura duen laguntza teknikoko zerbitzu bat, bizitoki kolektiboko eraikin edo antzeko eraikinetan, azken 7 urteetan zehar.
- Gutxienez ere **arkitektura teknikoko titulua edo baliokidea** duen pertsona bat, arkitektura teknikoaren arloko laguntza teknikoko zerbitzuaren arduradun gisa. Pertsona honek jarraian adierazitako gutxieneko esperientzia izan beharko du ere: kontratazio honen objektua diren jarduketekin lotura duen laguntza teknikoko zerbitzu bat, egikaritze materialerako aurrekontua 4.000.000 euroko bizitoki kolektiboko eraikina edo antzekoa dena, azken 7 urteetan zehar.

Konpromiso hau SPKLko 211.1 f) artikuluan aurreikusitako ondorioekin kontratua izango da. Beraz betebeharrak ez betetzeak kontratua amaitzea ekarriko du esleipenduna den erakundeak honela nahi badu.

## 11. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

### 11.1. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

- **Aurkezteko modua:** Aurkezten diren eskaintzak bitartekari elektronikoen bidez izango dira Eusko Jaurlaritzako Lizitazio Elektronikoko aplikazioaren bidez, ondorengo helbidean: <http://www.contratacion.euskadi.eus>.
- **Aurkezteko epea:** Hamabost lanegun kontratatzailearen profilean lizitazioaren argitalpena egien den hurrengo egunetik.

Epearen azkeneko eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo lehendabiziko egun baliodunera arte luzatuko da epea.

- **Komunikazio eta jakinarazteko moduak:** ZPKLko hamabosgarren xedapen gehigarrian adierazten dena jarraituz, kontratazio oraingo prozeduran egin behar diren komunikazio eta jakinarazpenak **elektronikoki** egingo dira Eusko Jaurlaritzako Lizitazio Elektronikoko aplikazioaren bidez. Jakinarazpen edo komunikazioa bidaltzen den bakoitzean lizitatzailerak bidalitako mezuaren oharra jasoko du honetarako eman duen posta helbidean.

## 11.2. AGIRITEGI ELEKTRIKOEN EDUKIA

Gutun azal 1, 2 eta 3 izendatuko dira nahiz eta agiritegi elektronikoak izan.

### **1. Gutun-azala. “AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETETZEARI DAGOKION DOKUMENTAZIOA”**

Administrazio-Klausula Zehatzen Pleguaren 13. Klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute lizitatzailerak.

### **2. Gutun-azala. “BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERA KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEEI DAGOKIEN DOKUMENTAZIOA”**

Gutxienez ondoren adierazten den informazioa jasotzen duen gutun-azala aurkeztu beharko dute lizitatzailerak:

1. **Lanak garatzeko proposatutako metodologia.** Kontratazio honen objektua den zerbitzua garatzeko erabiliko diren metodologiaren eta prozeduren azalpena.
2. **Entregatuko diren elementuen eta sortuko diren txostenen azalpena.** Kontratuaren objektua diren lanetatik eratorritako eta enpresa lizitatzailerak proposatutako entregatzeko elementuen eta txostenen azalpena.
3. **Lantaldearen antolaketa eta funtzionamendu proposamena.** Proposatutako talde teknikoaren eta laguntza taldearen egitura (profilak, eginkizunak eta erantzukizunak), eta baita talde hauen antolaketa eta funtzionamendua ere, bai barne mailan zein Donostia Sustapeneko langileekin ezarritako harremanei dagokienez.

Zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeari buruzko apirilaren 7ko 3/2016 Legean xedatutakoa betetzeko helburuz, ohartarazten da kontratuak indarrean dauden legezko eta arauzko xedapenak eta xedapen konbentzionalak eta lan arloko, Gizarte Segurantzako eta laneko segurtasun eta osasunaren arloko aplikagarriak diren xedapenak bete behar dituela.

Testuinguru horretan, 2. Gutun-azal honetan aurreikusitako dokumentazioan, lizitatzailerak adierazi beharko dute, esleipendun baldin badira zein hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xede den jardura egingo duten bere edo azpikontratatako langileei, kontuan

izanda esleipendunak edozein kasutan duela aplikagarria den arloko hitzarmen kolektiboaren arabera langileen soldata-baldintzak betetzeko betebeharra.

### **3. Gutun-azala. “FORMULAK ERABILITA EBALUATZEKOAK DIREN IRIZPIDEEI DAGOKIEN DOKUMENTAZIOA”**

Klausula Administratibo Partikularren Pleguari V. Eranskin gisa erantsitako ereduaren arabera aurkeztuko da Formulak erabilia ebaluatzeakoak diren irizpideei dagokien proposamena.

Ondorengo kontzeptuak jaso beharko ditu, zehazki, proposamen horrek:

#### **Proposamen ekonomikoa:**

- \_\_\_\_\_ euro/ordua (BEZa barne) arkitekturaren, instalazioen, egituren eta telekomunikazioen arloetako laguntza teknikoko zerbitzuaren truke.
- \_\_\_\_\_ euro/hilabetea (BEZa barne) obren jarraipenerako laguntza teknikoko zerbitzu lehenetsiaren truke.
- \_\_\_\_\_ euro/unitatea (BEZa barne) arkitektura teknikoaren arloko laguntza teknikoko zerbitzuaren truke.

#### **Baloratzeke beste alderdi batzuk**

- Proposatutako denborak: \_\_\_\_\_ ordu gutxiago, ezarritako epearekiko, bileretan jorratu denaren aktak bidaltzeko (40 ordu).
- Kontratuari atxikitako giza baliabideen esperientzia proposamena: \_\_\_\_\_ lan gehiago, kaudimenaren atalean eskatutako kopuruarekiko.

#### **OHARRAK:**

ADIERAZI BEHAR DA 2. GUTUN-AZALEAN EDO BESTE GUTUN-AZAL BATEAN 3. GUTUN-AZALARI BURUZKO EDOZEIN DATU SARTZEA LIZITAZIOTIK KANPO UZTEKO ARRAZOIA DELA.

BESTALDE, GUTUN-AZAL BAKOITZEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK BAT BAINO GEHIAGO IZANEZ GERO, LIZITAZIO ELEKTRONIKOKO PLATAFORMAN GUTUN-AZAL BAKOITZEKO ESPAZIO BAKARRA GAITZEN DENEZ, BAKARRA BIHURTU BEHARKO DIRA FITXATEGI KONPRIMITU BATEAN, PDF BATEAN EDO LIZITATZAILEAK DUENAREN BIDEZ.

## **12. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK**

Ondorengoak izango dira esleipenerako irizpideak, dagozkien haztapenarekin adierazita:

**1. Balio-judizio baten arabera kuantifikatzeakoak diren irizpideak: 48 puntura arte, gehienez.**

**1. Lanak garatzeko proposatutako metodologia.** Kontratazio honen objektua den



zerbitzua garatzeko erabiliko diren metodologiaren eta prozeduren azalpena.

Donostia Sustapenaren eta enpresa adjudikaziodunaren arteko komunikazioa errazten duen metodologia ordenatu eta erraza modu positiboan baloratuko da. **Gehienez ere 25 puntu.**

2. **Entregatuko diren elementuen eta sortuko diren txostenen azalpena.** Kontratuaren objektua diren lanetatik eratorritako eta enpresa lizitatzailerak proposatutako entregatzeko elementuen eta txostenen azalpena.

Modu positiboan baloratuko da elementu hauek ahalik eta informazio gehien jasotzea eta ulerterrazak izatea. **Gehienez ere 13 puntu.**

3. **Lantaldearen antolaketa eta funtzionamendu proposamena.** Proposatutako talde teknikoaren eta laguntza taldearen egitura (profilak, eginkizunak eta erantzukizunak), eta baita talde hauen antolaketa eta funtzionamendua ere, bai barne mailan zein Donostia Sustapeneko langileekin ezarritako harremanei dagokienez.

Modu positiboan baloratuko da profil bakoitzaren eginkizunen azalpena eta solaskide baten izendapena zerbitzu honen inguruko gaiak kontratuaren arduraduna den Donostia Sustapeneko ordezkariarekin jorrazteko. **Gehienez ere 10 puntu.**

24 puntuko gutxieneko puntuazioa lortu beharko dute eskaintzek, prozeduran jarraitu ahal izateko.

2. **Formulak erabilia ebaluatzeakoak diren irizpideak: 52 puntura arte, gehienez.**

- **Proposatutako denborak: Gehienez ere 4 puntu.**

Donostia Sustapeneko sail baten eskaerari erantzutea: 0 puntu emango dira bileretan jorratutakoaren aktetarako 5 eguneko epea ezartzen bada (40 lanordu, 09:00etatik, 17:00etara bitartean) eta puntu 1 emango da epe hori murrizten den 4 ordu bakoitzeko, gehienez ere 16 orduko murrizketara arte, hau da, 4 puntura arte. Gehienez ere 4 puntu.

- **Kontratuari atxikitako giza baliabideen esperientzia proposamena: Gehienez ere 8 puntu.**

2 puntu emango da kontratuari atxikitako profiletan eskatutako gutxieneko lan kopurua gainditzen duen laguntza teknikoko edo obra zuzendaritzako lan bakoitzeko, **goi mailako arkitektura edo baliokidea** eta **goi mailako ingeniari-tza industrial edo baliokidea** diren profilei dagokienez, gehienez ere 4 lan gehigarrira arte, hau da, 8 puntura arte. **Gehienez ere 8 puntu.**

- **Proposamen Ekonomikoa: 40 puntura arte, gehienez.**

Puntuak formula honen bidez esleituko dira:

$$\text{Lizitatzaileraren puntuak} = \frac{\text{onartutako eskaintza baxuenaren zenbatekoa}}{\text{}} \times \text{puntu gehienez}$$

## balioesten ari den eskaintzaren zenbatekoa

Eskaintako prezio osoa izango da eskaintako unitate bakoitzeko prezioa bider aurreikuspen zenbatetsia, orientagarria eta ez loteslea eginda ateratzen dena, eta urtekoa izango da..

Ez da onartuko lizitazioko unitateko gehieneko prezioak baino prezio garestiagoak dituen proposamenik.

Printzipioz, **neurritz kanpoko edo ausartegitzat joko da** gainerako proposamenen batez besteko aritmetikoarekin % 10eko ezberdintasuna duen edozein eskaintza, eta, halakotzat joz gero, aurretik informazioa eskatu beharko zaie haien lizitatuzaileei, eskaintzaren bideragarritasuna aztertzeko.

Neurritz kanpokotzat edo anormaltzat jo daitekeen proposamen bat identifikatutakoan, entzunaldia eman beharko zaie hura aurkeztu duten lizitatuzaileei, eskaintzaren balioespena justifika dezaten eta haren baldintzak zehaztu ditzaten.

Nolanahi ere, **kontratazio-organoak baztertu egingo ditu eskaintzak, baldin eta egiaztatzen badu anormalki baxuak direla** kontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ez dituztelako betetzen ingurumen, gizarte edo lan arloan aplikatzekoak diren betebeharrak, naziokoak edo nazioartekoak, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne.

### 13. EBALUAZIO BATZORDEA

Ondorengo kideek osatutako Ebaluzio Batzordearen laguntza izango du Kontratazioko Organoak:

- Kontratazioko teknikaria
- Antolamendua eta Iraunkortasun Ekonomiko teknikaria
- Berrikuntza eta Lehiazeko Gaitasuneko teknikaria

### 14. ADITUEN BATZORDEA

Ez dagokio.

### 15. KONTRATUA EGIKARITZEA

Ondorengo baldintzen arabera egikariturako da kontratua:

- a) Klausula Administratibo Partikularren Pleguko 20. Klausulan adierazitakoak.



- b) Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak saihesteko moduan egikarrituko da kontratua, lanean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko duten neurrien aplikazioa bultzatuz.
- c) Kontratistak estatuko eta Europar Batasuneko araudia bete beharko du datu pertsonalak babesteari dagokionez.

## **16. FUNTSEZKO KONTRATU-OBLIGAZIOAK**

Klausula Administratibo Partikularren Pleguaren 21. Klausulan ezarritakoak izango dira funtsezko kontratu-obligazioak.

Horrez gain, funtsezko kontratu-betebeharra izango da aurreko 15. puntuko b) eta c) letretan ezarritakoa.

## **17. DATU PERTSONALEN BABESA**

Kontratuaren xedeko zerbitzuak emateko, lanen izaera medio, erakunde kontratugileak ez du datu pertsonalen inolako tratamendurik egin beharko.

## **18. KONFIDENTZIALTASUNA**

Konfidentzialtasun-betebeharra informazioa ezagutzen denetik 5 urteko epean mantendu beharko da.

## **19. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA**

Klausula Administratibo Partikularren Pleguaren 26. Klausulan ezarritako aurreikuspenak aplikatuko dira.

## **20. ASEGURUAK**

Enpresa adjudikaziodunak erantzukizun zibileko aseguru bat izenpetu beharko du, gutxienez ere 300.000,00 €-koa.

## **21. ZIGORRAK**

Epeetan atzerapenak (osoak edo partzialak) izateagatiko zigorra izango da atzerapen-egun bakoitzeko 1,00 eurokoa kontratuaren prezioaren (BEZ kanpo) 1.000 euro bakoitzeko, baldin eta kontratua egikaritzen jarraitzea erabakitzen bada.

Zigor bera aplikatuko da kontratua akatsekin betetzen bada edo egikaritzearen funtsezko edozein obligazio edo baldintza betetzen ez bada, baldin eta kontratua egikaritzen jarraitzea erabakitzen bada. Kasu horretan, egin diren akatsak konpontzeko, bete ez dena betetzeko edo kontratua behar bezala egikaritzeko beharrezko den egun kopuruari aplikatuko zaio zigorra. Kasu bietan, egiaztatzen diren kalte-galerei gehituko zaizkie aipatutako zigorrak.

## 22. KONTRATUAREN LAGAPENA

Ez dagokio, lagatzailearen kualitate teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarriak izateagatik

## 23. AZPI-KONTRATAZIOA

Kontratatistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du zerbitzuaren prestazio partziala, Klausula Administratibo Partikularren Pleguaren 29. Klausulak eta SPKLaren 215. artikulua xedatzen dutena betez.

## 24. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio-organoak kontratua aldatu ahal izango du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

## 25. BERME-EPEA

Ez dagokio berme-epea.

## 26. KONTRATUA AMAITZEA

Klausula Administratibo Partikularren Pleguaren 33. Klausulan adierazitakoak izango dira kontratua amaitzeko arrazoiak.

Kontratua kontratatistari egotz dakioken arrazoiaren batengatik amaitzen bada, kontratuaren prezioaren (BEZ kanpo) % 10ko kopurua sorraraziko da erakunde kontratatzailearen alde. Zigor hori egiaztatzen diren kalte-galerei gehituko zaie.

Donostian, 2021eko otsailaren 9an,



Marisol Garmendia Beloqui  
Fomento de San Sebastián, S.A. sozietateko presidenteordea